



Korrikalari txiki eta gazteak fin ibili ziren haien lasterketetan. Lasarte-Oria Bai! Krosak etorkizuna duela ikusi zen igandeko Kros festan.

**Lasarte-Oria Bai! krosaren kronika**

**Haur eta gaztekoen Kros festako irudiak**

**Herriko korrikalarien sailkapena**

## Herri korrikalaria

Atletismoaren festa handia bihurtu zen Lasarte-Oria Bai Krosa igandean Okendon

Urtero bezala Lasarte-Oria Bai! krosa zein haur eta gazteen Kros festa izan ziren igandean gure herrian. Eguraldia lagun, goizean bi milatik gora korrikalari izan ziren Lasarte-Oriako kaleetan barrena lasterka. Helduen mailan, 300 herritar izan ziren lasterketan parte hartu zutenak; haurren, aldiz, seirehun bat. Okendo plazan eta inguruetan giro ezinhobeia sortu zen. •

**Astelehenean azaroaren 7an argitaratuko da hurrengo Txintxarria**

## Letoniako ahots gazteak

Europa iparraldetik etorritako 42 neskatok osatutako koroak ikuskizun itzela eskaini zuen ostiral ilunabarrean.

Tolosako kantu txapelketan parte-hartzera zetozeला aprobeztatuz, geldialditxo bat egin zuten gurean, eta bertaratuak kontzertu polita ikusi ahal izan zuten.

Letoniako kantu tradizional eta erlijiosoz osatua egon zen gehienbat kantutegia, baina bitxikeria gisa, aipatu beharra dago euskaraz kantatzera ere animatu zirela. Juncal Guerreroren "Kalera gazteak" edo "Maritxu" kantutak abestu baitzituzten. •



Letoniako Con anima abesbatzak nagusiki abesti herrikoiez osatutako kontzertua eskaini zuen Manuel Lekuona kultur etxean.

ALBISTEA/ 2

**Final erdietarako txartela dute jokoan Labaka eta Muñoak igandean**

ALBISTEA/ 3

**Kultur Webean txoko bat izango dute herriko kultur taldeek**

ALBISTEA/ 4

**Lorez bete zen hilerria hildakoen oroimenez**



**ZORIONAK PARTE HARTZEAGATIK!**

ASEGURUAK  
**Ges**

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

# Muñoa eta Labakaren ordua

- Azpeitian Gpuntua txapelketaren azken final laurdenean kantatuko dute igandean 17:30etan
- 472 punturekin finalerdietarako eta 2013ko Euskal Herriko txapelketarako txartela lortuko dute

Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan igandean arratsaldeko 17:30etan jokatuko den kanporaketan erabakiko da zein 18 bertsolari sailkatuko diren Gpuntua, Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketako finalerdietarako eta azken finean zein bertsolariren artean jokatuko den Gpuntua. Unai Muñoa eta Ane Labaka kantatuko dute saio honetan eta kantatu bezain laster jakingo dute final erdietan izango diren ala ez. Amaia Agirrek lortu du txartela, ez, ordea, Andoni Otamendi eta Unai Gaztelumendik.



Azpeitian Unai Muñoa eta Ane Labaka ikusteko sarrerak [www.gpuntua.com](http://www.gpuntua.com) webean eskuratu daitezke. Irudietan, herriko bi bertsolaria k txapelketako kanporaketetan.



Jon ALTUNA IZA

Gipuzkoako txapelketaren finalerdietara pasatzeak, badauka berarekin beste sari bat ere, 2013 jokatuko den Euskal Herriko Bertsolari txapelketan parte hartzeko aukera. Gpuntuaren finalerdietara pasatzen ez direnek aukera hori galduko dute, eta esaterako jada galdu dute, txapelketetan ondo ibili ohi diren Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxagak.

Azpeitian igandean jokatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken final laurdenean kantatuko dute Ane Labaka eta Unai Muñoak, Iñaki Apalategi, Iker Zubeldia, Arkaitz Oiarzabal "Xamoa" eta Jokin Urangaren batera, eta aurrera egin nahi duenak puntu mordoxka lortu beharko ditu.

Kanporaketan nagusitzen dena zuzenean pasatuko da azaroaren amaieran eta abenduaren hasieran Arrasate, Tolosa eta Hernanin jokatuko

diren final erdietara, eta puntuka sailkatzeko momentuz, 467,5 eta 472 artean dago langa. Hortik gora egiten duena final aurrekoetan izango da eta hortik behera egiten duena kanpoan.

Eta puntuaketa horren erdian geratuz gero, bigarren izanik nahikoa izango dira

468 puntu, hirugarren eta laugarrenak gutxienez 469 lortu beharko ditu, bosgarrenak 472 puntu eta azkena ere sailkatuko da 472 puntu baino gehiago lortuz gero.

Zain egongo dira eta urduri oraindik sailkatzeko aukerak dituzten Iban Urdangarin (472.0), Iñigo Izagirre,

(471.5), Ainhoa Agirreazaldegia (468.5), Iñaki Zelaia (468.5) eta Nahikari Gabilondo (467.5)

### Andoni Otamendi kanpoan

Andoni Otamendik Villabonako Olaederra kiroldegian kantatu zuen urriaren 23an, zortziehun bat lagun

arean, asko Lasarte-Oriatik joandakoak. Ez zuen Kultur Etxeko saioan bezala bere eguna izan eta txapelketatik kanpo geratu zen. Aipagarri da, berarekin kantatu zuten Beñat Gaztelumendi, Iñigo Manzisidor "Mantxi" eta Unai Agirre jada sailkatuak direla. Andoni Otamendirekin batera kantatu zuen Unai Gaztelumendi ere, 467 puntu eskuratu arren, final erdietatik kanpo gelditu da.

Amaia Agirrerri dagokionez, Hondarribiko pilotalekuan kantatu zuen aurreko larunbatean, urriaren 29an eta lortu du finalerdietarako txartela. Final laurdenean artean onenatarikoa eta berdinduenatarikoa izan zen, jada Aitor Sarriegi irabazlea, Alaia Martin eta Amaia Agirre bera sailkatuak baitaude, Iñigo Izagirre eta Nahikari Gabilondok oraindik badituzte aukerak, lehenengoak gehiago, eta Haritz Casabal izan zen kanpoan geratu zena. •

## 30 BERTSOLARI FINAL ERDIEN BILA

### Kanporaketa irabazita sailkatuak

Jexux Mari Irazu	502.0
Beñat Gaztelumendi	501.5
Aitor Sarriegi	494.0
Jon Martin	494.0

### Puntuaren arabera sailkatuak

Felix Zubia	482.0
Alaia Martin	481.0
Iñigo Mantzidor <i>Mantxi</i>	480.0
Unai Agirre	480.0
Agin Rezola	479.5
Beñat Lizaso	479.0
Amaia Agirre	478.5
Nerea Elustondo	474.5

### Kantatzeko falta direnak

**Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan**  
**Azaroaren 6an 17:30**

Iker Zubeldia
Jokin Uranga
Unai Muñoa
Ane Labaka
Iñaki Apalategi
Arkaitz Oiarzabal <i>Xamoa</i>

Lehenengo zuzenean pasatuko da finalerdietara, bigarrenak pasatzeko 468 puntu lortu beharko ditu, hirugarrenak 469, laugarrenak 469, bosgarrenak 472 eta azkena ere sailkatuko da 472 puntu baino gehiago lortuz gero.

### Emaitzen zain daudenak

Iban Urdangarin	472.0
Iñigo Izagirre	471.5
Ainhoa Agirreazaldegia	468.5
Iñaki Zelaia	468.5
Nahikari Gabilondo	467.5

### Aukerarik ez dutenak

Unai Gaztelumendi	467.0
Uxue Alberdi	461.0
Oier Aizpurua	457.0
Iñaki Gurrutxaga	451.0
Andoni Otamendi	431.5
Ander Lizarralde	440.5
Haritz Casabal	440.5

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: [txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com) • Publizitatea: [publizitatea@ttakun.com](mailto:publizitatea@ttakun.com) • Administrazioa eta banaketa: [administrazioa@ttakun.com](mailto:administrazioa@ttakun.com); [ttakun@ttakun.com](http://ttakun@ttakun.com).

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Kultur ekintzen berri emateko, LasarteOriaSarean weba abian

PSEk Kultura saila zoriondu du ekimen berriarengatik

Lasarte-Oriako Kultura sailak web orrialde berria, LasarteOriaSarean, jarri du martxan. [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) edo Lasarte-Oriako udaleko web orrialdeartik sartu ahal dira herritarrak.

"Orrialde honetan Udaleko departamentuek edo herriko elkarteek antolatzen dituzten jai, ekitaldi edo egitarauak egongo dira herritar guztiek, zein elkarteek ere honen berri izan dezaten" adierazi dute kultura sailatik.

Era berean, herritarrei erraztasunak emate aldera egin dutela ere azaldu dute, "era honetara, ez dute herritarrek kultur etxeraino etorri behar zein film edo ekintza dauden ikusteko".

## Agenda bateratua

Izan ere, web orrialde honetan astean zehar edo asteburuan herrian egingo diren ekintzen informazioa eta antolatzaileena eskuragarri dago euskaraz eta gaztelaniaz.

Honetaz gain, orrialde honetako atalen artean "garrantzitsuenetarikoa bat" agenda bateratua da.

"Honetan kultur edo gazteria saileko ikastaroaz gain, herriko kultura sailak eta elkarteek antolatzen dituzten ekintza edo jaialdien berri emango da," azpimarratu dute kultura sailatik.

Horretarako, sailak elkarten eskura izango duen fitxa bete beharko dute jardueraren nondik norakoak azalduz, eguna, ordua, sarrerarik dagoen edo ez, etab. Jarraian, [posta@lasarteoriasarean.eu](mailto:posta@lasarteoriasarean.eu) helbidera bidali behar da fitxa.

Kultura sailak eskaera bat egiten die herriko elkartei, "agendan ekimena argitaratzeko fitxa denborarekin



LasarteOriaSarean orrialdean herriko kultura ekintzei buruzko informazioa dago.

bidaltzea. Azken eguna, ekintza baino lau egun lehenago izango litzateke".

## Sare sozialak

Proiektu berri hau modu azkar eta motzean ekintzen berri emateko asmoarekin sortu da eta horretarako, LasarteOriaSarean orrialdean Facebook edo Twitter bezalako sare sozialekin bere tartea sortu du.

Era berean, LasarteOriaSarean web-a Kulturize plataformako kide da. Android eta iPhone mugikorretan aplikazioa jaitziaz LasarteOriaSarean orrialdeko antzerki edo kontzertuen berri izateaz gain, eremuan egon daitezkeenei buruzko informazioa ere izan dezakezu.

## PSeren oharra

Bestalde, Lasarte-Oriako talde sozialistak komunikabideetara bidali duen oharrean, Kultura saila zoriontzan du estreinatutako berri duen web orrialdeagatik.

Udalak herritarrei informazioa hurbiltzeko bide desber-

dinak bilatu behar dituela eta sare sozialak kultura kudeatzeko era bat direla onartu du PSEk. "Herritarren, herriko elkarten eta sailaren arteko harremanak kudeatuko eta topaleku izango den web orrialde irekitzea beharrezkoa da gaur egun," adierazten dute.

Hala baina, Jesus Zaballos alkate ohi eta talde sozialistaren bozeramailearen ustez, "web orrialde hau martxan jaritzeak Bildu, EAJ eta Plataforma sortutako Gobernuak Lasarte-Oriarentzako programa gabe sortu zela erakusten du."

Izan ere, "web orrialde honen sorrera alderdi sozialistaren hauteskundeetako programaren 78. proposamena zen," azaldu du alderdi sozialistak.

Era berean, PSEk "alkatezta kentzeko aitzakia kudeatzaile txarrak ginela bada, Gobernuak gure proposamena martxan jartzea ez dugu ulertzen".

## URTEURRENA

### Osasun Astea azaroaren 7tik 11ra

Osasun Astea antolatzen du Udalak urtero bezala: datorren astelehenean ostiralera bost hitzaldi burutuko dira arratsaldeko 19:00etan Villa Mirentxuko beheko solairuan dagoen aretoan. Nerea Sanchez zinegotziak adierazi digunez, aurrean gaixotasunei baino osasunari berari garrantzia eman nahi izan diote, "nola jokatu behar den ez gaixotzeko" alegia. Horrela astelehenean eskoletan sexologia jorratzen duen Lilima taldekoek "Bikote harreman osasuntsuak eraikiz" hitzaldia emango dute. Asteartean Egoitz Garro makrobiotikaren adituak "Elikadura eta sentimenduak" gaia jorratuko du. Asteazkena odol emaleei eskainiko zaie, gozetik informazioa emango da Okendon eta 19:00 "Odol emaleen etorkizuna" gaia jorratuko du Xabin Urzelaik. Ostegunean, osasun zentroak proposatuta zalantza eta galdera asko eragiten dituen Zintzon botikari buruzko argibideak eskainiko dituzten bertako Amets Arruabarrena mediku eta Rosa Gaintza erizainak gaixo eta seneideentzat. Azkenik ostiralean Alkoholiko Anonimoak taldeko bi kidek eta Kristina Saez de Arregi psikiatrak "Alkoholismoa, gaixotasun bat" jorratuko dute. Hitzaldiak gaztekeraz dira, baina ondorengo solasaldietan nahi dutenak euskaraz jardun daitezke.

## DANTZA

### Lip dub-a Okendon

Koadrilategi eta Gazteklubeko gazteek lib dub-a egingo dute larunbatean, azaroaren 5a, Okendo plazan. Hitzordua 15:30ean izango da eta bertan Pirritx eta Porrotxen Mari Kalanbre abestiarekin prestatutakoa erakutsiko dute. Ekimena irekia da eta nahi duenak parte har dezake honetan. Beraz dantzatzea gustuko dutenek aukera paregabea dute larunbateko arratsaldean gaztetxoek antolatutakoarekin primeran pasatzeko.

## URTEURRENA

### DYAren urteurrenean ekintza ugari

Oria Beheko DYA ordezkariak asteburuan, azaroak 5 eta 6, ospatuko du bere 25. urteurrena eta behar bezala egiteko hainbat dira antolatutako ekintzak. Larunbatean, azaroaren 5ean, ordezkariak bazkide eta bazkide-ohiek bazkaria egingo dute Dana-Oña jatetxean. Honetan izena emateko DYAren 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da eta ostirala arte egiteko aukera dagoela gogoratu dute antolatzaileek.

Igandean berriz, azaroaren 6an, izango da festa handia. Okendo plazan 10:30tatik aurrera eta 17:30ak arte DYAK dituen baliabideak erakutsiko ditu eta horretaz gain rokodromoa, umeentzako tailerrak, garraio ezberdinen erakutsia, tonbola eta formazio karpa txikia egingo dira herritarrek DYA eta lehen sorospenak gertutik ezagutu ahal izateko. 13:00etan oilasko eta sagardo banaketa egingo da euro 1en truke eta arratsaldean, 17:00etan simulakroa egunari amaiera borobila emateko.

## AURKEZPENA

### Bonberenea Txarangaren diska berria

Tolosako Bonberenea Txarangak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kanta ezagunenak moldatu ditu, txarangaren hotsa pailazoan ahots eta letrekin nahastuz. Larunbatean aurkeztu zuten bideo klip eta dokumental bat jasoko dituen DVDa eta 12 kantez osatutako CDa. Aurkezpen emanaldiak egingo dituzte Donibane Lohizunen azaroaren 20an, Iruñean 23an eta Gasteizen 27an, BEC-en abenduaren 17 eta 18, Kursalean urtarrilaren 3an eta Arrasaten urtarrilaren 5ean izango dira.

# IRATXO

Deitu eta probatu !

## ZURE JATETXE ITALIARRA

### EURO BATEN TRUK ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Borda Berri 5 behea • Usurbil 20170 • Tel.: 943 369135

[www.iratxoitaliano.com](http://www.iratxoitaliano.com)

Entsaladak  
Risottoak  
Pizak  
Pasta  
Ogitartekoak  
...  
ETXERA ERAMATEKO JANA

Asteartean itxita

# Lorez jantzi da hilerria egunotan

Krabelinak, liliak eta gladioloak dira hildakoak omentzeko erabilienak

Azaroaren 1a Domu Santu Eguna denez, sekula baino dotoreago izaten da hilerria egun hauetan, hildakoek senitartekoen bisita gehiago jasotzen dituzte eta jende ugari ibiltzen da bertan. Hildakoak oroitzeko loreak jarzkeko ohitura ez da galdu eta herritar asko ibili da hillobiak garbitu, txukundu eta lore-sortak jartzten.

JON ALTUNA EGITEGI

**H**ildakoak oroitzeko eguna izan ohi da Domu Santu eguna, eta mugimendua nabaritu da Lasarte-Oriako hilerrian azken egunotan. Zubi osoan zehar, jendea gora eta behera zebilen, batzuk oinez, besteak kotxez...

Baina denek zuten zendei omenaldi xume bat egiteko asmoa. Egia esan, Lasarte-Oriako hilerria ederra da oso, loreak jartzera joandako gizon baten hitzen arabera, Gipuzkoa osoko hilerririk "politena" da.

Leku paregabean dago kokatuta eta paseotxo bat emanez joateko, aparta da

lasarteoriatarrentzat. Leku ezinhobeia era berean, azken arnasa eman dutenek behin betirako atseden har dezaten.

## Hilobiak apaintzen

Jende asko ikus zitekeen euren ahaideen hilobiak txukun txukun jartzten. Lore zaharrak kendu eta berriak jarri, lurra aldatu, ureztatu...

"Maite dituzunak zaintzea baino gauza ederragorik ez dago, baita hil ostean ere", aitortu zuen emakume batek loreak ipintzen zituen bitartean.

Izan ere, euren senideen hilobia zainduta mantendu nahi izaten dute familiartekoekek, eurretaz ahaztu ez direla erakusteko. •



Jende askok txukun txukun jarri zituen euren ahaideen hilobiak, lore zaharrak kendu eta berriak jarri, lurra aldatu, ureztatu...



Lore saltzaileen egun handia izaten da Domu Santu Eguna, Amaren Eguna eta San Balentin Egunarekin batera.

## Lore saltzaileen egun handia

**A**stelehen goizean goizetik jarri zituzten herriko lore saltzaileek postuak bai Okendo plazan, baita hilerrian bertan ere. Saltzaileen goizeko lehen orduko inpresioa ez zen oso ona izan, jende "nahiko gutxi" zebilela onartu baitziguten. Horren arrazoia, Domu Santu egunaren bezpera astelehena izatea eta jendea zorian oporetara joan izana izan zitezkeela aipatu ziguten.

Hala ere, eskari bidezko lore salmentetan aurreko urtearekiko gorakada nabar-

mentu zutela aipatu zuten, eta "krisiaren mamua" pixkanaka joaten ari dela. Bestalde, jende gehiena eguerditik aurrera etortzea espero zutela argitu zuten, normalean hala izaten omen delako eta oraindik salmentek gora egingo zuten itxaropena bazutela onartu ziguten. Azkenik, lore salduenak zein izaten diren galdetuta, "krabelinak, liliak eta gladioloak saltzen ditugu normalean, horiek izaten dira jendeari gehien gustatzen zaizkionak", adierazi zuten lore saltzaileek. •

# I. GURRUZOLA

## ARBOZTEGIA



Lasarte-Oria Bait

KORRIKALARIEKIN  
BAT  
EGINEZ!

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea  
(Errekatxo jatetxearen ondoan)  
Tel.: 943 371200 / 610 413131  
LASARTE-ORIA





## Urteko herriko kirol probarik jendetsuenea



Hurrengo  
orrialdeetan:

■ **Lasarte-Oria Bai! XVI.** Kroseko argazkiak, kronika eta emaitzak

■ **Elkarrizketak:**  
Unai Arroyo  
David Martin  
Amaia Arbillaga

■ **XI. Kros Txikiko**  
argazkiak

[www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info)

helbidean  
lasterketako  
argazkiak

[www.ostadark.org](http://www.ostadark.org)

helbidean  
argazkiak eta  
kroseko emaitzak

[www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)

helbidean ere  
emaitzak

## Leire

JATEN  
DUGUNA GARA!



## Arandegia

Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946  
Iñigo de Ioyola 17 • Irun (Larreandi) • Tel.:943 624146

KORRIKALARIEKIN  
BAT  
EGINEZ!

Eskerrik asko guregan  
jarritako konfidantzagatik

KALITATEA  
PREZIO JUSTUAN



## Lasarte-Oria Bai!



ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatara 08:00etatik 14:00etara  
Astearte eta ostiraletan arratsaldean ere 17:00etatik 19:30era

# Lasarte-Oria Bai!, krosa baino gehiago

■ Amaia Arbillaga eta Unai Arroyo tolosarrak nagusi herriko krosean ■ Eguraldi zoragarria izan zuten bertako eta kanpoko 1.508 korrikalariak ■ Kros Txikian beste 623 hurrek jardun zuen

XVI. Lasarte-Oria Bai! herri krosak berriro ere markak hautsi zituen igande goizean. Inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren, aurten 1.508k eman zuten izena eta 1.490k amaitu zuten eguraldia ere korrika egiteko bikaina zela baliatuz. 85 urteko Serafin Galindo astuariarrak ere egin zituen 10 kilometro eta 500 metro eta Lasarte-Orian izaten den bultzada eta giro onarekin txudituta, umore onez aitortu zuen hurrengo urtean ere etorriko dela. Bere atzetik erratzarekin urtero bezala etxeoandrez jantzita ateratzen diren azken korrikalariak. Bestalde, Kros Txikian 600 hurrek baino gehiagok hartu zuten parte.

JON ALTUNA EGITEGI

Urdin eta eguzkitsu esnatu zen herria igande goizean. Lasarte-Oria Bai! XVI. Kros herrikoia eguna izan ohi da urriko azken igandea, egun handia lasarteoriarrentzat. Aurten, primerako eguraldia suertatu zitzaizen korrikalarietara. Ez hotz, ez bero, korrika egiteko egun aproposa oso. Kaleko giroa berriz, aparta. Jende andana ikus zitekeen herriko espaloietan lasterkariak animatuz, euren animu guztiak emanez. Azken finean, Lasarte-Oria Bai! Krosa horixe da, herriak herriari antolatutako festa eguna.

Goizean goizetik korrikalari mordoak zebilen Michelin inguruan beroketa ariketak egiten. Korrika txikian batzuz, luzaketa ariketak egiten besteak, azken likidoak barneratu edota zertxobait jaten zebiltzan gehienak. Ez da gutxiagorako, Lasarte-Oria Bai! XVI. kros herrikoia eguna baita, egun handia inondik ere, Behobia-Donostia klasikoaren aurreko azken azterketa serioa.

Urduritasuna nabari zen haien aurpegietan, pultsome-

troa ondo dabilela egiaztatu, sudurreko tiritaxoa jarri, kronometroa zeroan ipini... eta irteera marrara. Lekua hartzea garrantzitsua izaten baita halakoetan, lasterkari bakoitzak erritmo bertsua duena nahi izaten baitu ondoan, erreferentzia gisa. 10:30ak heldu ahala, bihotzaren presioa igo egiten dela sumatzen dute guztiak... Zapatilak ondo lotuta daudela azken aldiz egiaztatu eta... Has dadila festa.

## Elbarriak aurretik

Korrikalariak lasterka hasi aurretik, agurra dantzatu zieten Erketz dantza taldekoek parte-hartzaile guztiei eta ondoren, elbarrituen lasterketa hasi zen. Handik minutu bira abiatu ziren korrikalariak. 10,5 km-ko ibilbidea zuten denek aurretik.

Kilometroek aurrera egin ahala, korrikalarien aurpegiko keinuak gero eta behartuagoak zirela atzematen zen, hantxe pisua hartuko baliete bezala. Hala ere, 6. kilometro inguruan, probaren erdi aldeira, Oriako pabilioietan aho lehortua freskatzeko parada zuten lasterkariak. Oso ohi-koa izan ohi da hornidura



Lasarte-Oria Bai! XVI. edizioko sailkapen desberdinetako podiuma eta lasterketako antolatzaile eta babesleak.



Jon Altuna Egitegi Txintzarriko lankidea herriko junior mailako txapelduna izan zen.

postuetan ur botila bat hartu, zertxobait edan eta gainontzeko guztia burutik behera botatzea. Eguraldi ona lagun, bat baino gehiago ikusi genuen halakorik egiten.

## Krosa, zenbakitan

Unai Arroyo eta Amaia Arbillaga izan dira aurtengo edizioko garaileak, 33:16 eta 40:40 markak eginda hurrenez hurren. Gizonezkoetan, David Martin herritarrak ezin izan du iazko garaipena errepikatu, proba hasieratik aurrea hartu badu ere, azken kilometroetan Unai Arroyo 18 urteko gazte tolosarrak aurreratu egin baitu iazko txapel-dun herritarra. 33 minutu eta 15 segundotan burutu ditu probak dituen 10 kilometro eta 500 metroak. 21 segundo-

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**ZORIONAK KORRIKALARI GUZTIEI!**

**MAITE**

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

**Fernández**  
e h u n a k

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

**KORRIKALARIEI, ZORIONAK!**

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA



Elbarrituek eman zioten hasiera Lasarte-Oria Bai! krosari. Txapelketa honetako lehenengo sailkatuak hasieratik hartu zuen burua.



Korrikalariak herritarren animoak izan zituzten herriko kaleetan zehar.



Hipodromo aldera ere hainbat herritar hurbildu zen lasterketa ikustera.

ra iritsi da David Martin herri-  
tarra eta 49 segundora Yeray  
Varela oñatiarra.

Emakumezkoetan, irabazle  
Amaia Arbillaga tolosarrak 40  
minutu eta 37 segundo behar  
izan ditu ibilbidea osatzeko.  
Uztarrozko Laura Sola bigar-  
renak 40:45 eta Usurlbilgo  
Idoia Ezeiza hirugarrenak  
42:24. Lehen lasarteotiarra,  
Maria Mendibe izan da 43  
minutu eta 10 segundoko  
denborarekin.

Elbarrituetan berriz, Ima-  
nol Martin abantoarra izan  
zen azkarrena, 28:16ko den-  
borarekin, bere atzetik Villa-  
bonako Iñaki Iraola, eta  
Urruñako Pierre Miura sartu  
ziren. Denera, 1508 korrikala-  
rik eman zuten izena eta  
horetatik 1483 iritsi ziren hel-  
mugara. Elbarrituak berriz, sei

izan ziren guztira eta denek  
lortu zuten helmugara iristea.

### Helmuga ostean, saria

Denetarikoa sentsazioak atze-  
maten ziren behin helmuga  
marra zeharkatuta. Pozik  
batzuk, konforme besteak, eta  
bat edo beste haserre bere  
buruarekin... Baina oroko-  
rrean, festa giroa zen nagusi.  
Elkarri lasterketan izandako  
batailatxoak kontatzeko auke-  
ra paregabea izaten baitira  
halakoak.

Behin helmugara iritsita,  
parte-hartzaile guztiek zeuka-  
ten jana eta edana indarrak  
berreskuratzeko: nahi adina  
fruta eta ur botila zeuzkaten  
eskuragarri... Eta nahi zuten  
korrikalientzat garagardoa  
ere bai. Ezin ezbaian jarri  
antolakuntzaren lana.

### Inoiz ez da berandu

Bitxikeria gisa, aipatzekoa da  
85 urteko korrikalari asturiar  
batek krosa bukatzea lortu  
zuela. Serafin Galindo xixon-  
darra izan zen balentria lortu  
zuen atleta. Sekulako txalo  
zaparrada jaso zuen Geltoki  
Kalea zeharkatzen zuen bitar-  
tean. Azkeneko metroak osat-  
zen ari zela, hunkituta sartu  
zen helmugara, denei esker-  
rak emanez. Gizon eredu-  
garria, inondik ere.

Bestalde, adimen urritasu-  
na duten pertsonak laguntzen  
dituen Jalgune taldekoek kros-  
saren azken metroak osatu  
zituzten eta gero Kros Txikia-  
ren antolatzaileen laguntzaile  
fin izan ziren.

Hauxe izan da aurtengo  
krosak utzi diguna. Hurrengo  
urtean, gehiago. •



Urtero legez, umore onean eskoba lanetan izan ziren hiru lagunak.



ZORIONAK  
KORRIKALARIEI!

Lasarte-Oria Bai!

Etorri gurekin gosaltzera!

Hipodromo etorbidea 3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366176  
labegoxo@euskalnet.net



DENA BERTAN EGINA

PASTELAK  
OPILOK  
PASTAK  
OGIA  
BONBOIAK  
...



# Tolosarrak garaile kros herrikoian

Unai Arroyo eta Amaia Arbillagak jaso zuten 2011ko Lasarte-Oria Bai! Kroseko txapela

**Unai Arroyo/** Gizonezkoen mailako irabazlea

## “Ez nuen irabazterik espero”

**I**gandeko Lasarte-Oria Bai kros herrikoian 18 urteko Unai Arroyo tolosarra izan zen garaile eta lehenengo aldiz parte hartzen bazuen ere berak jantzi zuen txapela. Gazteak garaipena kendu dio herriko David Martin korrikalariari 33'16ko denbora eskuratuz.

**Lehenengo aldia al da Lasarte-Oriako krosean?**

Ba egia esan ez. Helduekin korrika egiten dudan lehen urtea izan da hau, baina umetan Kros Txikian parte hartu izan dut. Oso gustura egin dut korrika eta sentsazio oso one-

kin bukatu dut lasterketa. Ez nuen espero hainbeste korrikalarik parte hartzea eta asko gustatu zait sortzen den giroa. Korrikalarien maila ere oso ona da.

**Irabazterik espero al zenuen?**

Irabaztea ez, ez nuen espero. David Martin joan da lasterketa hasieratik aurrean eta banekien bera zela iazko irabazlea. Zubietan, 8. kilometroan uste dut, David harrapatu eta ondo nengoela ikusita, esfortzua egin eta aurreratzea erabaki dut. Nire asmoaz konturatu da, baina

indarrez nahikoa juxtu zegoe-la iruditu zait eta ezin izan du nire erritmoa mantendu.

**Zein zen zure helburua?**

Helburua gustura eta maila onean korrika egitea zen. Ez dut denbora jakin bat bilatu, izan ere, atletismoan ibiltzen naiz eta laster txapelketak hasten direnez, hau entrenamendu moduan hartu nahi izan dut. Txapelketetan lehia-tzen hasi aurretik garrantzitsua da jakitea zein egoera fisikotan zauden eta horrelako herri krosak horretarako lagungarriak izaten dira. •



Unai Arroyok zortzigarren kilometroan harrapatu zuen David Martin herritarra.



David Martin lasterketaren buruan izan zen azken bi kilometroetara arte.

**David Martin/** Gizonezkoen mailan bigarrena

## “Atleta gazteak indartsu datoz”

**B**igarren izan da aurtengo herri krosean David Martin lasarteoriatarra. Hiru ediziotan lortu du garaipena, baina aurtengoan ezin izan du.

33 minutu eta 36 segunduko denbora eta bigarren postuarekin pozik azaldu da David Martin atleta.

**Garaipenak ihes egin dizu aurtengo lasterketan...**

Ba bai. Oso ondo hasi naiz, baina banekien Unai Arroyo atzetik zetorrela eta berarentzat izan da lehen postua.

Beti ezin da irabazi, azkarra goa izan da Unai eta gainera, oso maila oneko korrikalaria dela badakit.

**Azken kilometrotan harrapatu zaitu?**

Bai, Zubietan bera aurretik joateko moduan zela ikusi dut eta ezin izan dut bere erritmoa mantendu. Nire mailan jarraitzen saiatu naiz eta azkenean segundu batzuk atzerago sartu naiz soilik. Unai gaztea da eta badakit oso maila onean dagoela, beraz, zoriontzea besterik ez daukat. Belau-naldi berriak indartsu datoz eta bera da horren adibide.

**Datorren urterako zein da helburua?**

Orokorrean maila jaisteko asmoa daukat. Ez dut korrika gutziti utzi nahi, baina aurtengo behobia egin ondoren gauzak

aldatuko dira. Hainbeste lasterketan parte hartzen jarraitu ahal izateko entrenamendu saio asko egin behar dira eta dagoeneko beste ardura batzuk ditut. Datorren urtetik aurrera lasterketa gutxiagotan parte hartzea erabaki dut. Bi seme alaba txiki ditut eta beraiei denbora gehiago eskaini nahi diet.

**Gaurkoan penarekin orduan?**

Pena bai, baina urte asko izan dira korrika eta erritmoa jaitsi arren, azken urte hauetan denbora asko eskaini diot korrika egiteari beraz, ordua iritsi dela iruditzen zait. Datorren urteko krosean parte hartuko dut, baina lehen postutan egoteare-na zailagoa izango da. •

- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak
- 56 plazako autobusak.
- Autobus literadunak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN  
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060  
e-maila: info@autocaresurpa.com  
web orria: www.autocaresurpa.com

**URPA**  
**AUTOBUSAK**





Amaia Arbillagak 8 segundutako errenta atera zion Laura Sola bigarren sailkatuari.

**XVI. Lasarte-Oria Bai! herri krosetako eta XI. kros txikiko argazki gehiago, [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web orrialdean**



Dortsalak, txipak eta kamixetak larunbatean banatzen hasi ziren arren, igandean korrikalari asko bildu zen Michelinen.



Lasterketako hainbat puntutan bi txapelketetako partehartzaileek bat egin zuten.

**Amaia Arbillaga/** Emakumeen arteko irabazlea

## “Hasierako aldapak gogorrak egin zaizkit”

**E**makumeen artean ere lehenengo postua tolosar batentzat izan da aurten. Amaia Arbillagak irabazi du 40 minutu eta 40 segundoko denbora eginez eta animatuta dago bi aste barru Behobia eta Donostia arteko proban ondo aritzeko.

### Lehen urtea kros honetan?

Bai, niretzako lehenengo urtea izan da lasterketa honetan eta ezuste handia izan da irabaztea. Askok gustatu zait lasterketaren inguruan sortzen den giroa. Ikusleek asko animatzen dute eta hori eskertzen da.

### Ez zenuen garaipenik espero?

Egia esan ez. Ibilbide hasieran aldapa batzuk daude eta gogorra egin zait, baina gero nire burua ondo ikusi eta gustura egin dut ibilbidean aurrera.

### Hurrengo helburua zein duzu?

Lasterketa askotan parte hartzen dut eta hurrengo Behobia izango da. Espero dut honetan maila ona eman ahal izatea gaurkoa ikusita. Datoren urteari begira, ikusiko da, baina besteak beste berriro Lasarte-Oria Bai! krosetan parte hartzea espero dut. •



Serafin Galindo 85 urteko xixondarrak parte hartu zuen.



Jalguneko lagunek haien urteurrenoko ekintzekin aurrera jarraitu zuten, lasterketako azken metroak egin eta Kros festan yogurtak banatu zizkieten haurrei.

**L-OKO KROSAREN ALDE ZORIONAK!**

**ika**  
Lasarte-Oria Bai!

**ika**  
haur eta gazteentzako jantziak

**Geltoki Kalea 3 • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 045978**

# Etorkizuneko korrikalari trebeak

Aurtengo kros festan seirehun haur eta gaztetxo baino gehiagok parte hartu zuten



Lehenengo kros festan parte hartu zuten haurrek pozik egin zituzten lasterketako 100 metroak.



Nahiz eta lehenengo metroak kontrolpean egin, txilibittoa jo eta erritmo bizian korrika egiten zuten txikiak.



Indar eta gogo guztiak jarri zituzten gaztetxoek lasterketa buruan izan eta helmugan lehenengo izateko.



Arerioak ongi kontrolatu behar direla ederki dakite gaztetxoek. Bestela, postua galdu dezakezu.



Lasterka egiteko trebeak direla erakutsi zuten herriko neska tea mutiko gazteek.



Neskak mutilak baino azkarragoak izan daitezkeela ere ikusi genuen lasterketa batean.

**Lasarte-Oria Bai!**  
KROSAREKIN BAT EGINEZI!  
Etorri gure jaki  
goxoak  
probatzera  
Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

VINA del MAR  
TABERNA-KAFETEGIA

**VENTANAS  
SAN MIGUEL**  
Zuregatik oso gertu!  
KROSEKO KORRIKALARIEKIN BAT EGINEZI!  
Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegiaeren atzean)  
Tel.:943 362457 • LASARTE-ORIA



Azken metroetan ikusleek animoak eman zizkieten gaztetxo eta haurrei.



Etorkizunean Lasarte-Oria Bai! kroko irabazlea haien artean izan daitekeela erakutsi zuten gazteek haien lasterketetan.

**NAROA  
PATXI LARRAÑAGA  
ANA IPARRAGUIRRE**



**Kale Nagusia 39  
Tel.: 943 372668  
Faxa: 943 370737**



**Lasarte-Oria Bai!**

**EGIN BADUZU KROSA  
EMAN DIGUZU POZA!**

# SANCHO TABERNA

**KAXUELA,  
PINTXO ETA  
MORUNOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

**OGITARTEKOAK**

**PINTXOAK**


**PLATER KONBINATUAK**

**EGUNEKO MENUA HITZARTUTAKO  
ETA  
TALDEENTZAKO  
MENUAK**

**ZORIONAK  
KORRIKALARI GUZTIEI!**



**Lasarte-Oria Bai!**



**Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075**

Asteazkena, 2

**Ipuin-kontalaria**

KORUKO ZURUTUZA ipuin kontalaria 5, 6 eta 7. urteko gaztetxoek zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, **18:00etan**, EUSKARAZ

Osteguna, 03

**Zinea**

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskuetik CENTAUROS DEL DESIERTO filma. MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN, **21:30ean**, B.O., GAZTELANIAZKO AZPITULUEKIN. **Sarrera, 4,30 euro.**



Ostirala, 4

**Kontzertua**

METAL GAUA izango da KORUMBÁ eta HILOTZ taldeen eskuetik. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan.**



Otsoak herriko kaleetatik barrena

DEABRU BELTZA taldearen THE WOLVES kale antzerkia, *Kale antzerkia sustatuz* ekimenaren barruan. Duela 800 urte inguru, txirulari batek Hamelingo arratoi inbasioa geldiarazi omen zuela diote. Arazoa bukatuta, beldurrak bidea eman zion ahanzturari eta honek, haserreari. Gaur, 800 urte beranduago, pasarte errepikatzeaz dago. Pianojolea da oraingoan, gizaki bitxia eta ezkerrekoa, bere musikarekin hiria otsoen erasotik askatuko duena.

LARUNBATA 5  
19:00ETAN

OKENDO PLAZATIK ATERATA

Igandea, 6

**Zinea**

HAURRENTZAKO ZINEA atalean, PHINEAS Y FERB filma ikusgai izango da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 3,30 euro.**



Astearte, 8

**Ipuin-kontalaria**

PELLO ANORGAK 4 eta 5. urteko gaztetxoek zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, **18:00etan**, EUSKARAZ.

Asteazkena, 9

**Diaporama zikloa**

TOMAS MAIZ, ALEX TETUAN eta TXOMIN OTAEGIK MAROKO eta DOLOMITETARA egindako bidaien berri emango dute. JALGI KAFE ANTZOKIAN, **21:30ean.**

Ostirala, 11

**Diska aurkezpena**

MIREN FERNANDEZ abeslariaren diska berriaren aurkezpena: "LAZTANTZEN NAUEN ESKUA". MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN, **20:00etan.**

**Kontzertua**

SKAKEITAN talde Donostiarrak ska, reggae eta rock doinuez betetako kontzertua eskainiko du. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan.**

Larunbata, 12

**Antzerkia**

HAURRENTZAKO ANTZERKI sailaren barruan, ANTARTIKAKO LOREA lana eskainiko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**, EUSKARAZ. **Sarrera, 3,30 euro.**

Astearte, 15

**Ipuin-kontalaria**

KONTU KANTOIKO lagunek 6, 7 eta 8. urteko gaztetxoek zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, **18:00etan**, EUSKARAZ

**Oharrak**

**Marrakiz eta margo eskolak**

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak marrakiz eta margo eskolan oraindik plazak badaude.

Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira. Interesa dutenek kulturetxeko 2. solairura jo behar dute.

**Irakozkunak Udalari**

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko irakozkun orrialdea duela gogora arazten du.

Orrialdea Udaleko harrean dago eskuragarri, baita baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

**Hirigintzako departamentua Ganbo kalean**

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

**1962. urtean jaiotako enafaria**

1962. urtean jaiotako lasartearrentzat afari bat antolatuko dugu azaroaren 12rako, Dakara jatetxean.

Interesatuak 50 euroko

diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, honako kontu korronte zenbakian, 3035 0036 12 0360082971.

Argibide gehiagorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu). Anima zaitetz!

**Udako Txokoetako argazkiak**

Gaur, urriaren 17tik aurrera prest egongo dira Udako Txokoetako argazkien CDak.

Txokoetan ibili diren haur guztiei banatuko zaizkie eta jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

**Euskal Dantza taldea**

Landaberri BHNl entsaiatzen

duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean hasi da.

Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:00etara.

**Alboka Abesbatza**

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitetz!

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

**Dagokionari**

Hauxe duzue zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukera desberdinak dituzue; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz [mezua.txintxarri@txintxarri.inf](mailto:mezua.txintxarri@txintxarri.inf) o helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**MINHO TABERNA**

Razioak  
Pintxoak

...  
Etorri dastatzera!

**Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885**

**ZORIONAK KORRIKALARI GUZTIEI!**

# Jalgi

KAFE-ANTZOKIA



GELTOKI KALEA 4 BEHEA  
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024



Lasarte-Oria Bai!

KROSAREKIN BAT  
EGINEZ!



# JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



Lasarte-Oria Bai!

KORRIKALARIEKIN BAT EGINEZ!



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186